




BARREN  
TOKIKOM

# Etorkizuna, eskuz esku



# BANATOR !!!



Barixakua,  
Ekainak 8,  
17:00etan

MAALAKO PARKEAN

Antolatzailea:



Babeslea:



Loguntzaileak:



## LAN-DEIALDIA

EKAINAREN 25ETIK UZTAILAREN 20RA BITARTEAN  
UDALEKU IREKIETAN LAN EGITEKO  
HEZITZAILEAK BEHAR DITU ELGOIBARKO IZARRAK

### ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila altua izatea.

### BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Hezkuntza Premia Behar Berezietako ikasketak izatea edo arlo horretan esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA: **EKAINAK 11, ASTELEHENA**

[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean laga zure curriculumak,  
gurean lan egin nahi baduzu atalean



Barren 25 urte

# Zatoz zurearen bila

Kalegoen plazatik herriko denda eta tabernetako erakuslehoetara eraman genituen joan zen astean BARRENEK azkeneko hogeita bost urtean argitaratu dituen azaletako batzuk. Hor izan dira astebetetz, eta gehienak jaso ditugu atzera. Pilatu eta sailkatu ditugu gehientxuenak berriro eta datorren astetik aurrera hemen izango dituzue, etxera eraman nahi izanez gero.



Aurreratu genuen maiatzaren 25eko argazkiak ahaztezinak izango zirela eta bistan da zuetako askorentzat hala direla. Egunotan asko izan zarete zuen azalaren bila erredakziora etorri zaretenak edo non eta noiz eskuratu ditzakezuen galdezka deitu diguzuenak. Lasai, ez kezkatu, zeuentzat izango dira-eta. Maiatzaren 25ean plazara atera genituen azal-orrietako asko Elgoibarko eta Mendaroko erakuslehoetan ikusiko zenituzten egunotan, baina ekainaren 8rako BARRENEK bulegoan izango ditugu berriro bueltan, beraz, nahi duzuenok etorri zeuenaren bila. Guk plazako ekitaldian parte hartu zenuten protagonistentzat daukagu gordeta azalak, baina norbaitek kopiaren bat nahiko balu, BARRENEK zerbitzu hori ere eskainiko du. Plazako ekitaldirako azal bakoitzeko pertsona bat lotu genuen telefonoz, baina azal-orri batzuetan protagonista bat baino gehiago eraman genituen lehen orrira. Telefonoz deitu genizuenean ere esan genizuen, baina, ez genukeela nahi inor bere azalik gabe gelditzerik, eta horregatik pentsatu dugu egokia litzatekeela kopiak egiteko zerbitzua eskaintzea. Kopia horiek A3 tamainan egingo ditugu, eta plastifikatuta banatuko ditugu, 2 eurotan. Beraz, esandakoa: astelehenetik aurrera, nahi duzuenok etorri BARRENEK bulegora azalen bila. Zalan-tzarik izanez gero, deitu **943 744 112** telefono zenbakira edo idatzi [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera.





## Emakumeen kontuak

Has naiteke errealak diren datu ikusgarriak ematen nire hitzei pisua emateko, baina horren ordez momentu batez inguruan dituzun 35 urtetik gorako emakumeengan pentsatzea eskatuko dituzu? Klean topatzean izaten duzun hamar minutuko elkarrizketan euren gogo eta proiektuez hitz egiten dizute? Egin kontaketa mental bat eta ea ohizkoagoa den hori edo inguruko behar eta zailtasunez hitz egiten dizuna, iritsi ezinik ikusten, gelditu ezinik baina nekata.

Hauxe pentsatuz jaiki naiz gaur, emakumeok gaixotzen gaituena geure buruarekiko gehiegizko exijentzia (laguntza eskatu? Ahal dut nik!) eta besteen beha-

rrak geure egitea dira. Krisi egoera aztertu, testuinguruan kokatu (zeintzuk daude inplikatuak, nola ulertuko dute egoera, zein litzateke gatazka saihesteko modua inor iraindua sentitu gabe), ditugun baliabideak errepasatu eta esku-hartze plan bat bost minutuan egiteko gaitasuna dugu, eta historiako gladiadore ausartenaren determinazioz gauzatu genezake.

Inguruan begiratzen dugu ea nori ego-tzi funtzioa, baina ez dago inor egin berri dugun analisia elkarbanatzen duenik eta azaltzen hasiz gero zenbat denbora eta energia beharko genuke uler dezan hori dela modurik efektiboena eta ez dela agintzearen edo norbere ikuspuntua gailentzearen... (puff! hori bai nekea!) Zer moduz gaitasunak garatu eta ardurak elkarbanatzen baditugu?

**G**urkoan zuekin elkarbanatu nahi nuke emakumeon osasunaren inguruan buruan dabilkidana. Urteak aurrera doazen heinean, ibilbide profesionalean aurrera, gero eta baliagarriagoa izaten ari zait genero ikuspegia gaur egungo gizartearen eta subjektuen ondoezak ulertzeko.

*“Emakumeok gaixotzen gaituena geure buruarekiko gehiegizko exijentzia eta besteen beharrak geure egitea dira”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

Debemen elkarteak eskerrak eman nahi dizkie Trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere hilabeteetan zehar antolakuntza bilertara etorri izan diren auzoetako alkatuei, eta nola ez, Armueta Harategiko Angeli. Baita ere egunean bertan dastaketa orduan eta bazkaria zerbitzatzera etorri ziren landa inguruneko auzoetako boluntario guztiei. Sagardoa banatzen egon ziren gazteak ere ez ditugu ahaztu nahi.

**Irene Alberdi, Debemen**

### ► IKASTOLATIK ESKERTZA

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, ekainaren 2an, ospatu zen Ikastola eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei eta baita irakasleei ere. Goizean goiz hasi zen eguna, partehartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, giro ederrean igaro zen. Bestalde, azpimarratzekoa izan zen antolaketan finfin aritu ziren neska-mutilen lana.

Eskerrik beroenak parte hartu zuten guztiei! Agurtzane ileapaindegia, Alire, Alkorta bakailaokak, Ametsa, Aranburu, Arriere de la Maison de Izaro, Astigarraga kirolak, Azkue, Bankoa, Banco Santander, Barrenetxea-Etxeberria botika, Belaustegi, Beristain, Bernardo Ecenarro, BM, Caixa, Caja rural, Castrillejo estankoa, C.D. Elgoibar, Debemen, Doña Mercedes, Ecenarro lentzeria, Eizagirre, ElgoibArt-Eduardo Arrillaga, Elgoibarko Udala- Berdintasun saila, Ene bada, Eroski, Fadek ileapaindegia, Gabiri, Garate jantzidenda, Geoparkea, Gorosabel elektrizitatea, Gorostiza, G&M, Goazen, Hesian (Zuriñe Hildalgo), Idama, Imanol Agirretxe, Ipintza, Jasone Osoro, Jose Antonio ileapaindegia, Kaia, Kala, Karkizano, Laboral kutxa, Lanbroa, Lurdes ileapaindegia, Maala, Magi bitxiak, Marai&kn, Markel Bergara, Mausitxa, Mekanosa, Moma, Milan academy, Noa, Pelegrin, Pepe estankoa, Pilon, Pitxintxu, Raquel De La Arada, San Roke kafetegia, Salento, Sanlo, Sara

jantzidenda, Sigma jatetxea, Siu fisioterapia, Sumunistros Evia, Surya belardenda, Tantaka, Txarriduna, Udal liburategia, Urkotronik, Uzuri, Viento Sur, Xarlem kreazioak, Zazpi informatika eta Zu gehi ni.

**Ikastola Eguneko Batzordea**

### ► ALTSASUKOAK ASKE

Altsasu Guardia Zibilez beterik esnatu da berriz ere asteon. *Altsasu auzian* aske utzitako lau gazte atxilotu zituzten asteartean eta Madrilera eraman. 9 eta 13 urte arteko espetxealdia bete behar dute. Beste hiru gazte urte eta erdi daramate preso. Altsasuko gazteen gurasoek manifestaziora deitu dute Iruñean ekainaren 16rako. Bidegabekeria hau guztia salatzeko, Elgoibartik ere babesa ematera joango gara. Autobusa jarriko dugu Iruñera joateko, beraz, eman izena Lanbroan eta Jai Alain. Atera gaitzen kalera! Altsasukoak aske, utzi Euskal Herria bakean!

**Altsasukoekin elkartasun taldea**



**399€**

**LED JVC LT-43VU53K**

SMART TV  
WIFI  
BLUETHOOOTH  
3 HDMI  
2 USB  
A+  
4K ULTRA HD



**1329€**

**LED SAMSUNG UE49NU8005T**

SMART TV - WIFI  
BLUETHOOOTH  
4 HDMI  
2 USB  
DOLBY DIGITAL PLUS  
SMARTTHINGS APP  
4K ULTRA HD



**499€**

**BOSCH PID631BB1E  
MAHAIGANA**

Indukzioa  
3 Gune (32cm, 21cm, 15cm)  
Touchselect Kontrola  
Sprint funtzioa



**469€**

**BOSCH HBA74R251E LABEA**

Piroitikoa  
3D Berotzea  
aitzairu herdoigaitza  
A

## Robotikari buruzko ikastaroak eta erakusketa jolas giroan egin zituzten



**R**obotika Dibertigarriaren Feria egin zuten domeka goizean Maalako parkean Elgoibarko Udaleko Sustapen Ekonomikorako eta Enplegurako Sailak antolatuta, bigarren urtez jarraian.

Bi ikastaro eta erakusketa izan zituzten feriak. Tailerretan 7 eta 13 urte bitarteko 64 umek hartu zuten parte: 35 neskek eta 29 mutilek. Udal teknikari Miriam Monterok oso balorazio ona egin du: "Oso emaitza positiboa izan da. Beti ahalegindu gara neskek industriara gerturatzeko eta aurten lortu dugu nesken kopurua handiago izatea". Tailer horietan programazioarekin eta robotikarekin lotutako proiektuak egin zituzten jolas giroan.

Erakusketan Elgoibarko tailer teknologikoetan parte hartu duten ikasleek beraiek egindako robotak erakutsi zituzten. Ikasturte osoan 25 lagun ibili dira, eta datorren ikasturtean ere egiteko asmoa dute urrian hasita.

## Patxi Zabaleta oroitu dute ETAk hil zuenetik 30 urte pasatu direnean

Joan zen asteazkenean, ekainaren 6an, 30 urte bete ziren ETA erakunde armatuak Patxi Zabaleta Aizpitarte elgoibartarra tiroz hil zuenetik. Mapfre aseguru-enpresako langile eta Guass diskotekako jabe zen Zabaleta.

Urtero legez, lora sorta batekin gogoratu zuten Zabaleta hil zuten egun eta leku berean. San Frantzisko kale erdian hil zuten tiroz bi lagunekin paseatzen ari zela.

Patxi Zabaleta izan zen, hain zuzen ere, ETAk Elgoibarren hil zuen azken biktima.



## Morkaikoren irteerak hegaziak, kobazuloak eta izarrak ikusteko

Morkaiko elkarteak hainbat irteera antolatu ditu ekainerako. Bihar, ekainak 9, hegaziak ikustera joango dira Asier Sarasua biologo eibartarrak gidatuta. Ekainaren 16an, espeleologia irteera izango da, 10 urtetik gorako haur eta gazteentzat. Haur lur azpiko mundua ezagutaraztea da helburua Debako Ermittia Behekoa kobazuloan. Morkaiko-Lizarpe taldeko Evaristo Rodriguez eta Angel M. Tobajas izango dituzte gidari. Kaskoa, frontala, oinetako egokiak eta aldatzeko arropa eraman eta gurasoren batekin joan behar dira umeak. Bestalde, ekainaren 1erako antolatuta zegoen Izar gaua ekainaren 22ra atzeratu dute, eguraldiagatik. 22:00etan Aiastiako aparkalekuan elkartu eta Jokin Martinez gidari dutela unibertso eta eguzki sistemari buruzko azalpenak jasoko dituzte gaztetxoek, eta baita izarrak ikusten nola orientatu ikasi ere. Plazak mugatuak direnez, aurrez eman behar da izena 636 994 798 zenbakira deituta edo [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus) e-postara idatzita.

## Alcer elkarteko mahaia ekainaren 16an

Alcer, giltzurrun gaixoen elkarteak, informazioa emateko eta bazkideak egiteko mahaia jarriko du Kalegoen plazan ekainaren 16an, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Giltzurrun gutxiegitasun kronikoa dutenen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten du Alcerrek. Aste hau organu emaileen astea izanik, kalera irtetea erabaki dute organu emaile berrien bila.

## Soriara egin zuten asteburuko irteera Haizeako emakumeek



Haizea emakumeen elkarteak antolatuta 89 emakume joan ziren Soriara asteburuko bidaiari. Sorian, Numancian, Burgo de Osman, Calataña-zorrekoko gazteluan eta herrian, eta Rio Loboseko San Bartolome ermitan izan ziren bisitan, besteak beste. Hilabetero antolatu ohi ditu ekintzak Haizeak, eta ekainean, emakumeentzako jabekuntza tailerrak, zine foruma eta batukada entsegua izango dituzte Haizeak antolatuta Elgoibarko Udalaren eta Berdintasun mahaiaren laguntzarekin.

## Altsasuko gazte auzipetuei babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuten



Altsasuko gazte auzipetuak babesteko elkarretaratzea egin zuten martitzen, lau gazte atxilotu zituzten egun berean, Kalegoen plazan. 75 lagun inguru elkartu ziren *Altsasukoak aske! Alde hemendik* kartelaren atzean. Bide batez, deialdia egin zuten auzi honen kontra ekainaren 16an Iruñean egingo den manifestazioan parte hartzeko. Autobusa jarriko dute Elgoibartik eta Lanbroan eta Jai Alain eman behar da autobuserako izena.

## Uztailaren 28an elkartuko dira Sigmako auzotarrak

Sigmako eskolak 50 urte bete zituzten 2012an, eta horren harira, ospakizun jaia antolatu zuten zenbait auzotarrek. Aurten berriro elkartzea erabaki dute eta goiz osoko egitaraua prestatu dute uztailaren 28rako. Aspaldiko lagun eta ezagunak berriz ikusteko elkargunea izango da. Sigmako eskolan ikasitakoak eta Estarta y Ecenarro enpresan lan egin eta auzoan bizi izandakoak bazkari baten bueltan gogoratuko dituzte urteotako auzoko kontuak. Goizean dultzaineroen dianarekin eta erraldoiekin hasiko dute eguna, 10:00etan. Gero, auzokideak elkartu eta bakoitzak bere orogarrria jasoko du, eta elizkizuna egingo dute gero, 11:30ean, Sigmako elizan. Umeentzako jolasek ere izango dute lekua eta trikitilarien doinuek girotuko dute goiza. Luntxa egin ostean, taldeko argazkia aterako dute 13:30ean. Bazkaria frontoian izango da, 14:30etik aurrera. Jaiari parte hartu eta bazkari-tara joan nahi dutenek uztailaren 10a baino lehen eman behar dute izena. Horretarako, 47 euro sartu beharko dituzte Laboral Kutxako ES97 3035 007 21 0071135348 kontu zenbakian.

## Besakoen oparia automozio pinturako Euskoskills irabazleei

Euskoskills lehiaketan automozio pinturako atalean urrea eta brontzea lortu zuten Meka ikasitexeko bi ikasleri (Kimetx Alberdi eta Andoni Berstain) Sata etxeko bi pistola eta Sinnek kamiseta bana oparitu dizkie Sinnek pinturak egiten dituen Elgoibarko Besa enpresak, lehiaketan egin duten lan onagatik.





*Gipuzkoako kilometro arduradunak Eibarren bildu ziren eguenean, igandekoa prestatzeko.*



# Gure Esku Dagoren gihar soziala

**Eskutik heldu eta Donostia-Bilbo-Gasteiz ibilbidea osatzera deitu du Gure Esku Dago-k domekarako. 202 kilometroko giza katea izango da, eta, zapiak jende artean direla, gutxienez ehun mila lagun behar dituzte katea osatzeko. Elgoibartik eta Mendarotik ere pasatuko da katea, eta azkeneko momentura arte egongo da izena emateko aukera. Jai handia izango dela aurreratu dute antolatzaileek.**

- AINARA ARGOITIA -

**G**aur bost urte Durango eta Iruñea arteko giza katea osatu zuten Gure Esku Dago-k, eta 150.000 lagun mobilizatu zituen. Orain, baina, erronka handiagoa du, domekarako proposatu duen ibilbidea ia 80 kilometro gehiago dituelako [202 kilometro] eta bete egin behar direlako. Elgoibartarrak eta mendaroarrak Bergaran batu zituen giza katea arrakastatsua izan zen, baina orduko ilusio-giroa apalduta igarri dute herri batzordeetan lanean jardun direnek oraintsu arte. Boluntarioek aitortu dute giza katerako lanean hasi zirenean termometroak ez zuela duela bost urteko berorik markatzen eta saretu-kopuruak nahi baino mantsago egiten zuela gora, baina azkeneko aste eta egunotako kontua oso bestelakoa da. Eguna gerturatu ahala, berotuz joan dira herritarrek eta izenemateek nabarmen egin dute gora. Eta orain bai, orain, domekakoa "handia" izango dela esateko moduan daude. Horixe azpimarratu zuen Angel Oiarbide Gure Esku Dago dinamikako bozeramaileak ere eguenean, Eibarren, Gipuzkoako kilometro arduradunek egin zuten batzarrean. "Giza kapital izugarria daukagu, eta kapital hori martxan jartzen denean herri hau geldiezina da. Igandeko giza katearen helburua zera da: euskal herritar gehien dauden eremuetara Gure Esku Dagoren energia, ilusioa eta konplizitatea eramatea".

Domekakoa festa handia izango dela aurreratu dute Elgoibarko eta Mendaroko herri batzordeetatik, baina erronka handiak antolakuntza handia eskatzen duenez, kontuan hartu beharreko hainbat ohar ere zabaldu dituzte. Garbi utzi dute herritarren segurtasuna lehenetsiko dutela beste edozeren gainetik, eta horretarako peto horia jantzita ibiliko diren boluntarioei kasu egiteko

eta pazientzia izateko eskatu dute. Azpimarratu dute oso garrantzitsua dela esandako orduak betetzea eta baita, jakina, zaborrak batzea ere. Era berean, esker on hitzak ere izan dituzte ekimena babestu eta antolakuntza lanak erraztu dizkieten guztientzako: bi udalak, udaltzainak, boluntarioak... "Denok izan gara eta gara beharrezko, erronka hau gauzatzeko eta erabakitzeo eskubidea egikaritzeko". Hona, hemen, orain, herri bakoitzari dagozkion zehaztasunak:

## Elgoibar

Elgoibarrek bi kilometro osatzeko erronka du domekan, Melitonen hasi eta Sigmara arteko zatia (katea herri barrura sartuko da), eta eguazteneko datuen arabera, gutxienez 900 lagun dituzte saretuta horretarako. Horrez gain, baina, beste hainbat kilometroren ardurara ere hartuko dute elgoibartarrak (guztira, sei kilometrorena). Tolosatik, Altxotik, Belauntzatik, Gaztelutik, Leaburu-Txaramatik, Lizartzatik eta Oreatatik datorren jendetza ere zuzendu beharko dute. Guztira, 35 bat autobus. Horregatik, antolakuntzakoek hainbat argibide eman dituzte egunari begira. Batetik, 10:30erako herriko hainbat puntutara agertzeko deia egin diete saretutakoei. Puntuak honako hauek dira: Herriko Antzoki pareta, Maala, Kalegoen plaza, eta Santa Anako zubia. Puntu bakoitzean arduradun bat egongo da, eta hark emango dizkie azalpenak. Bakoitzak non egon behar duen garbi duenean, tarte bat hartu ahal izango du, baina 11:30erako esandako lekuan egon beharko du. 12:00etatik 12:30era osatuko da katea.



Giza katerako izenik eman ez dutenek egunean bertan ere izango dute horretarako aukera, Maalan, Kalegoen plazan eta Santa Ana kalean jarriko dituzten mahaietan. Kamisetak, baina, Kalegoen plazako postuan bakarrik erosi ahal izango dira.

Giza katea bukatu osterako plana ere proposatu dute Elgoibarko herri batzordekoek. Eibarren egingo den jaira deitu dute. 13:00etatik aurrera erromeria egongo da Eibarko Untzaga plazan, Parrapas taldearekin, eta ondoren, herri bazkaria. Bazkariarako txartelak Deportibo eta Buenos Aires tabernetan eskuratu daitezke. Bazkalostean, La Basu eta Koban taldeen kontzertuez gozatzeko aukera izango da.

## Mendaro

Giza kateko 60. kilometroa osatzea dagokio, Intxarbakuntzako aldapan hasi eta Lanbi enpresara artekoa, baina baita

58 eta 59. kilometroak osatzera Billabonatik, Adunatik, Alkizatik, Asteasutik, Larrauldik, eta Zizurkilditik datozen lagunak eta Mendarotik Debara arteko kilometroak osatzera datozenen autobusak zuzentzea ere (45 bat). Asteleheneko datuen arabera, Mendaron bertan 320 bat lagun zeuden katerako izena emanda, baina bai gaur eta baita domekan ere izango da horretarako aukerarik. Gaur, ostirala, mahai jarriko dute plazan herri batzordekoek, 18:00etatik aurrera, eta egunean bertan, 9:30etik aurrera, udaletxe azpian izango dira materiala saltzen eta izenak hartzen. Izena emandako guztiei 11:00etarako Urkunde enpresaren aurrean batzeko eskatu diete, handik jendea dagokion lekura zuzentzeko. Giza katea osatu ostean, elkarrekin bazkalduko dute frontoian, aurrez tiketa erositako guztiak, eta herriko hainbat lagunek girotuko dute bazkalostea. Bertsoak, dantza eta musika izango dira osagai nagusiak.

## GURE ESKU DAGO-K JARRITAKO MUGARRIAK

- ♦ **2007:** Urte horretan hasi zen gorpuzten Idiazabalen, gerora Goierri eta Euskal Herri Nazioen Mundua izenez ezagutzera eman zen mugimendua. Herri kirola ardatz, sentsibilitate ezberdinetako herritarrek bildu zituen helburu baten baitan: nazio guztiak erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea.
- ♦ **2012ko udazken eta 2013ko udaberria:** Tarte horretan hasi zen erretzen Goierri Gure Esku Dagoren hazia. Eskualdeko jende ezagun batzuk batu eta mugimenduak gerora hartuko zituen printzipioak izenpetu zituzten.
- ♦ **2013ko ekainaren 8a:** Gure Esku Dago herri dinamika aurkeztu zuten Irungo Ficoba erakustazokan. Dinamika "herritarra" dela azaldu zuten, erabakitzeko eskubidearen aldeko ekinbideei "erreferentzia eta aterkia" ematea helburu zuena. Eta poliki-poliki herritarrek dinamikarekin bat egiten hasi ziren. "Sinetsita geunden herri honetan sentsibilitate politiko ezberdinetako jendeak ezin zuela elkarrekin ezer egin, eta sinemenak beti dakar jarrera bat atzetik. Eta esango diguzue jarrera harekin zer etorkizun geneukan herri honetan! Herritarrok ez genekien zenbateko gaitasuna izan genezakeen eragiteko, elkarrekin lan egiten hasiz gero. Testiaguru horretan sortu genuen herritarrok Gure Esku Dago", azaldu zuten Angel Oiarbidek egunean Gipuzkoako kilometro arduradunek Eibarren egin zuten batzarrean.
- ♦ **2014ko ekainaren 8a:** Gaur bost urte, eskua eman zioten elkarri milaka lagunak Durangotik Iruñera osatutako 123 kilometroko giza katean. 150.000 lagunek hartu zuten parte giza katean, eta eragile politiko eta sozial ugariaren babesa izan zuen ekimenak. "Ariketa horrek behartu gintuen herriz herri ordura arte elkarri begiratzen ez genion pertsonak elkarri begiratzen hastera, errezoak gainditzera, konplizitateak sortzera, eta puskatuta geneuzkan zubiak berriro eraikitzen hastera. Ohartu ginen elkarrekin pausoak emateko beharra geneukala". 130 herritan sortua zen ordurako Gure Esku Dago eta elkarrekin bide-orria diseinatu zuten.

Hiru fasetan lan egin behar zela zuten: ehunzte fasea, adoste fasea eta erabakitze fasea: gizartea oinarritik ehundu behar zela adostu zuten, adostasunaren kultura jorratu behar zela eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatzetik gauzatzera pasatu behar zela.

- ♦ **2015eko ekainaren 21a:** Hautetsontzi handiak eraiki zituzten bost hiriburutan. Oihal zatien bidez, herritarren borondatea batu nahi zutela irudikatu zuten.

- ♦ **Galdeketen aroa:** Ekainaren 21eko ekitaldiek galdeketen aroa zabaldu zuten. Ordurako, Etxarri Aranatzan eta Arrankudiagan eginak zituzten estatus politikoaren inguruko lehenengo bi galdeketak. Orduetik, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaiko 203 udalerritan egin dituzte herri galdeketak eta 200.000 lagun baino gehiagok parte hartu dute. "Euskal herritarren herena bizi den eremuetara iritsi dira galdeketak eta herritarren %23k parte hartu dute. Batzuek zenbatekoan jarriko dute lupa, baina guk zenbatekoari baino gehiago egiten ari garen horri erreparatzen diogu: duela bost urte haserretu gabe tratatu ezin genezakeen gaiari buruz hitz egiteko aukera eman diegu herritarrei; erabakitzeko eskubidearen gaineko eztabaida normaltasunez zabaldu dugu, eta herritarrei hitza emanez, adosteko ohitura demokratiko hori landu dugu". Azaroaren 19an izango da hurrengo olatu handia, Iruñen eta Donostian estatus politikoari buruzko galdeketak egiten dituztenean.

- ♦ **2018ko ekainaren 10a:** Donostia-Bilbo-Gasteiz 202 kilometroko katea osatuko dute domekan. 100.000 lagun behar dituzte horretarako. Gasteizko Legebiltzarrean, Herritarren Ituna aurkeztuko dute, euskal herritarrek erabakitzeko dituzten milaka arrazoiak biltzen dituen dokumentua, herriz herri egingako ekarpenekin ondu dutena. Guztira, 2.019 arrazoi jaso dituzte itunean, 2019. urteari erreferentzia eginez, uste delako estatus politikoaren gainean erabakitzeko urte erabakigarria izango dela.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Zaborrak, zabor edukiontzira:** Azkeneko asteotan kexa ugari jaso ditugu zaborren inguruan. Batetik, herritar bat etorri zaigu esanez Arregitorreko zabor edukiontziak egoera txarrean daudela eta jende asko zaborra kanpoan uzten hasia dela. Urazandiko bizilagunak ere kexu dira. Bizilagunei kontzientzia handiagoz jokatzeko eskatu die auzotar batek eta mesedez zabor poltsak edukiontzietara botatzeko. Bizilagun honek berak ohartarazi du auzoan gero eta txakur kaka gehiago daudela eta gizalegez jokatzeko eta kakak batzeko eskatu die txakur jabeei, eta neurri zorrotzagoak hartzeko Udalari. Udalak behin baino gehiagotan erantzun dio txakur kaken inguruko kexari.

**Baserritarren kexua:** Sallobente auzoko baserritar batek errespetu handiagoz jokatzeko eskatu die kaletarrei. Pasiaran dabiltzan oinezko nahiz txirrindulariak sarri lur pribatuetan sartzen direla salatu du, eta kontu hartu izan dienetan erantzun txarrak ere jaso behar izan dituela gehitu. "Exe ondoraino sartzen dira, hesiak gaintik pasatuta. Aurreko batean, kargu hartu nion emakume bati eta mendia denona dela erantzun zidan. Jakina mendia denona dela, baina lur hauetan bizi gara gu eta lan ere hemen egiten dugu. Kontu handiz zaintzen dugu gure bizilekua eta lantokia dena, eta errespetu handiagoa eskatu nahiko genieke".



**Mendaroko Kirol Eguna antolatu zutenei, Mesker onez:** "Txalo bero bat eman nahiko genieke Mendaro Ikastolako Arno Guraso Elkarteari eta zapaturako antolatu zuten Kirol Egunean boluntario lanean jardun ziren guraso guztiei. Goiz dotorea pasatu zuten gure seme-alabek kirola eginez, eta gogotik gozatu zuten gure txikienek frontoian material birziklagarriarekin atondu zuten jolaslekuan. Ikusi genituen nola jolasten ziren taldetan adin ezberdinetako neska-mutilak eta jabetu ginen antolatzaileek lehiaren gainetik jolasa lehenesteko egin zuten ahaleginarekin. Benetan eredugarria. Eskerrik asko".



**C.D. Elgoibarreko Lehen Erregional mailako taldeak kopako finala jokatu zuen Orion, eta bigarren egin zuten.** "Lerro hauen bidez zorionak eman nahi genizkieke gure mutilei denboraldian zehar egin duten lanagatik. Zorionak, eta aupa Regi!".

# ► Zinemari biraka dantzan

Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako saioa eskainiko du gaur, Mendaron, eta hilaren 13, 14 eta 15ean, Elgoibarren. Elgoibarko saioetarako sarrerak agortu dira dagoeneko

**B**iraka dantza taldeak ikasturte amaierako ikuskizuna eskainiko du gaur Mendaron, eta hilaren 13, 14 eta 15ean, Elgoibarren. *Biraka zinema* jarri diote izenburua ikuskizunari eta zinemak ezagun egin dituen hainbat musika dantzatuko dituzte. Josu Mujika koreografo elgoibartarraren taldeetako 4 urtez gorako ehundik gora neska-mutilek parte hartuko dute ikuskizunean, taldetan banatuta, eta Eibarren eta Soraluzen ikuskizunera batu den jendetza ikusita eta Elgoibarren herriko saioetarako sarrera guztiak agortu direla jakinda, ikuskizunak arrakasta ziurtatuta duela aurrera deza kegu [Elgoibarko saiorako ostiral arratsaldean jarri zituzten sarrerak salgai Pitxintxun, eta ordu gutxiren buruan bukatu ziren]. Mendaron, 22:00etan eskainiko dute gaur ikuskizuna, frontoian, eta Elgoibarren 20:00etan izango dira hiru saioak, Herriko Antzokian.

## Zinemagintzaren omenez

“Zine munduari egindako omenaldia da ikuskizuna eta doinu guztiak filmeetako soinu bandetakoak dira”, esan du Mujikak. Marrazki bizidunetako kantuak, Abba talde ezagunaren *Mamma mia*, *Pretty Woman*, *Ballerina*, *Pulp Fiction*, *Quiero ser como tú*, *Moulin Rouge*, *The Mask*, *Monster* eta beste hainbat film ezagunetako kantuak dantzatuko dituzte, eta dantza eta kantuaren bidez, historiak ere kontatuko dituzte nagusiagoek. Hilerrian gaupasa egingo dute talde batekoek, esate baterako, eta Satanasen agindutara dantzan ariko direnak ere izango dira. Debabarrena osoko dantzariak parte hartuko dute ikuskizun hauetan, tartean herrikoek ere bai.

Eibarren lau saio eskaini zituzten joan zen astean, Coliseoan, eta Soraluzeko ki-



*Biraka taldeko dantzariak.*

roldegia ere bete egin zuten maiatzaren 25eko iluntzean. 180 bat dantzarik parte hartu zuten Soraluzeko saioan, 50 bat herrikoak, eta musika indartsuak eta argi dantza koloretsuak lagunduta, saio ikus-

**Debabarrena osoko  
ehundik gora ikaslek  
parte hartuko dute  
ikuskizunean**

garria eskaini zuten. “Geu ere harrিতa gaude aurten izan dugun arrakastarekin. Saio bukaeran, urtero etortzen zaizkigu gurasoak urte horretakoa hobetzen zaila izango dugula esanez, baina bistan da aurten ere lortu dugula. Eibarren, bi-hiru ordutan agortu ziren sarrera guztiak, eta beste horrenbeste gertatu da Elgoibarren. Neu ere sinistu ezinda nago. Hori dantzari-entzatzat izugarria da. Asko saiatzen dira, eta urtetik urtera maila hobea ematen dute. Pozik gaude”, esan du Mujikak.



# Banda, rock doinutan

Ailegatu da eguna. Eguna baino gehiago, gava: Rock Gava. Izen hori eman zioten 2016an Udal Musika Bandak Jon Gurrutxagarekin batera rock doinuak eskainiz emandako kontzertuari. Gaur, ekainak 8, berriz helduko diote orduko egitasmoari, iaz Celtas Cortos taldearekin aritu ostean. 22:30ean izango dute zita banda eta rock zaleek, doinu bereziok entzuteko. Oraingoan, Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak gain, beste herritar bat ere izango da taula gainean: Ehun Kilo taldeko abeslari Jon Zabala. Hirugarren, laguna, kanpotik gonbidatu dute: Alex Sardui Gatibuko kantaria. Maalan hiru kantarioz eta Udal Musika Bandako musikariez gain, beste hainbat musikari elgoibartar ere ariko dira, baina, oholtzan: Silvia Hernandez teklatuan, Patxi Zabaleta gitarran, Juan Carlos Martin musika eskolako irakaslea gitarrarekin eta Andoni Mujika baxuarekin.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



laz Celtas Cortos taldearekin Kalegoen plazan eman zuten kontzertuko une bat.

Rock gauarekin lehen pausoak ematen 2016an hasi zen Udal Musika Banda, Jon Gurrutxaga lagun zuela. laz, Celtas Cortosekin batera jo zuten Kalegoen plazan, eta aurtentzen, bandak jo ohi dituen doinuen antzekoak jo dituzten taldeetan aritutako abeslari ezagunekin saiatuko dira. Gatibuko Alex Sardui komentatu zioten eta haren baitza jaso zutenean hasi ziren aurtengo kontzertua prestatzen. Bigarren pausoa, berriz, jo nahi zituzten abestiak bandarako egokitzea izan zen. "Ez da lan makala", aitortu du Gorka Mujika Udal Musika Bandako zuzendariak. "Zuzendari ordea, Juanma Saez, artista bat da lan horietan eta berak egin ditu konponketak". Alex Sardui da Elgoibartik kanpora aurpegi ezagunena, baina bi herritar ere ariko dira kantuan: Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala. "Elgoibarkoak di-relako eta primeran abesten dutelako aukeratu ditugu Gurrutxaga eta Zabala. Gure helburua beti izan da Elgoibarko jendeak parte hartzea ekimen hauetan, eta bi abeslari horiez gain, herriko beste musikari batzuk ere parte hartuko dute kontzertuan".

Bandaren maila musikalki oso ona dela uste du Gorja Mujikak eta ondo erantzuten dutela. "Guk ohiko kontzertuetan 4 edo 5 abesti jotzen ditugu, baina oraingoan hamar izango dira, ezberdinak gainera. Estiloa ez da berbera eta ezberdin landu behar dira; hala ere ziur gaude ondo irtengo dela". Jende asko espero du bandako zuzendariak gaurko kontzertuan, askotariko jendea gainera. "Badakigu Alex Sardui jende gazte asko ekarriko duela, Euskal Herrian gazte ugari erakartzen dituen taldea delako Gatibu. Beste abestiek beharbada jende nagusiagoa erakarriko dute, baina publiko guztiak asetzeko moduko eskaintza da. Espero dut, beti bezala, jendeak gurekin disfrutatzea. Guk gozatuko dugu jotzen, eta entzuleek ere goza dezaten nahi dugu".

## KANTUZ KANTU

- ◆ **Rock classics**  
(Klasikoak. Adibidez, Rolling Stones)
- ◆ **Pink Floyd**
- ◆ **Zeu, zeu, zeu!**  
(Gatibu)
- ◆ **Ez naizu epaitu**  
(Gatibu)
- ◆ **Feeling good**  
(Nina Simone)
- ◆ **Metal**  
(Abesti bilduma. Adb.: Black sabbath)
- ◆ **Bang-bang txiki-txiki bang-bang**  
(Gatibu)
- ◆ **Land of thousand**  
(Wilson Pickett)
- ◆ **Led Zeppelin**  
(Kantu bilduma. Adibidez, Black dog eta Starwayto heaven)
- ◆ **Euritan dantzan**  
(Gatibu)

## - JON GURRUTXAGA -



*"Pare bat kantu nik proposatu ditut. Soul kantuak dira, baina rockak badu souletik"*

Lehenengo saioan Jon Gurrutxagak kantatu zituen rock abesti guztiak eta oraingoan ere oholtzan izango da. "Gozamena da taula gainera igo eta beste 50 musikarirekin abestea. Gu ez gaude ohituta eta goian entzun dezakegun soinu sentsazio hori oso ezberdina eta oso polita da, rock formatu normalean ez daukagun handitasun sentsazioa ere ematen du. Hainbeste musikariren artean egoteak beste dimensio bat ematen du".

Aurtengoa aurrekoaren antzerakoa izango dela uste du, orduko abestien ildora arituko baita, baina abesti batzuk berak proposatu ditu. "Moldaketak Juanma Saezek egin ditu, eta hark esan zidan ea zein kantu ikusten nituen formatu horretarako aproposak. Pare bat proposatu nizkion eta biak oso politak gelditu dira. Soul kantuak dira, baina rockak ere badu souletik, beraz, kontzerturako egokiak dira oso".

Oraingoan, ordea, izango du beste kantu-lagunik. Gustura aritu dela aitortu du. Jon Zabalarekin batera kantatzea oso berezia egingo zaiola ere nabarmendu du Gurrutxagak. "Berarekin ez naiz sekula eszenatoki batera igo eta hartueman hori izatea berezia da. Neu ere izan nintzen bere garaian Ehun Kiloren jarraitzaile eta gustura jardungo naiz Zabalarekin".

Esan bezala ez du bandarekin kantatuko duen estreinako aldia izango gaurkoa. Elgoibarko bandarekin ez ezik Bastidakoarekin ere arituko da, eta gaurkorako ilusioz dagoela esan du.

## - ALEX SARDUI -



*"Eguenean entseatu eta barixakuan abestuta derrigor izango da kontzertu bizia"*

Aurrez abestutakoa da beste mota batetako banda edo talde batzuekin Gatibuko Alex Sardui, baina beretzat Elgoibarkoarekin aritzeak berezitasun bat baino gehiago ditu. "Musikalki berezia da, banda batekin egotea beti delako aberasgarria. Baina konexio berezia ere badut Elgoibarrekin, umetan Elgoibarrera sarri etortzen nintzelako udan".

Elgoibarren entzungo ditugun doinuak, baina, Gatiburen kontzertuetan entzuten ditugunen oso bestelakoak izango direla nabarmendu du. "Bost lagunekin jotzetik banda batekin jotzera pasatzea oso ezberdina da, bai konponketa aldetik eta baita soinu aldetik ere. Soinua ez da elektrikoa, akustikoa baizik; beraz, berezia. Abentura honetan asko gozatuko dudan irudipena daukat eta saiatuko gara gozazten ere".

Gatiburekin abesten dituen kantuak kantatuko ditu, eta bere betiko kantuak bandarako konponketekin entzuteko irrikaz dago. "Rockari edo beste estilo batzuei ere tokia egin behar zaie, eta bandak horretan ari dira azkeneko urteetan. Rock kantuak ez dira beharbada ohikoak, baina abesti ezagun asko jotzen dituzte. Asko garatu dira bandak".

Atzo, egunez, entseatu zuen Elgoibarko bandarekin eta bihar igoko da oholtzara bandako musikariekin batera, baina ziur da ondo irtengo dela: "Eguenean entseatu eta barixakuan abestuta, derrigor izan behar da kontzertu bizia. Ondo konponduko gara. Badut ilusioa kontzerturako".

## - JON ZABALA -



*"Suabeago kantatzen saiatu arren, ez zait ateratzen; ahotsa erraietatik irteten zait"*

Ehun kiloko abeslari Jon Zabalak sorprezaz jaso zuen Gorka Mujikaren gonbidapena. Aitortu du orain dela bi urteko kontzertuan inbidia sentitu zuela eta orain, jakina, oholtzara igotzeko ordua iritsi zain dago. "Hasieran arraro sentitu nintzen, baina gero bakoitzak bere aldetik ahal duen guztia jartzen du; beraz, oso ondo".

Lehen bere taldearekin zuen babesa bandarekin izango zuena baino handiagoa zela pentsatzen zuen, baina babes hori alde batetik zein bestetik sumatu duela dio. "Bandak sekulako soinu indartsua dauka, jotzen hasten denean". Lehen entsegura joan zenean pentsatu zuen bere buruarekin haserre irtengo zela, baina lehen aldiz entzunda oso gustura irtetzen. "Nire taldearekin nahi nuena egin nezakeen abestiak gureak zirelako. Orain abestiak beste batzuenak dira, eta akademikoagoa izan beharra dago. Abestia guxtienez ezaguna izan dadin partiturari eta konpasari jarraitzen ahalegindu behar naiz; gure taldean anarkikoagoak ginen".

Pare bat kantu eskainiko ditu, horietako bat Jon Gurrutxagarekin. "Haren ahotsa politagoa da. Nik baino dezentez hobeto abesten du, ahotsa oso ondo modulaturatzen. Nire ahotsa erraietatik ateratzen da, indarrari pisua emanaz. Suabeago egiten saiatzen naiz, baina ez zait ateratzen".

Zabalak ez dauka zalantzarik: "Kontzertu dotorea izango da eta entzuleek gozatuko dute. Bandak baditu bere ikusle fidelak, eta halakoekin entzule gazteagoak ere erakarriko ditu".

## Bertsolari txikien saio handia

Ahozotasuna eta bertsogintza proiektuaren baitan ikasturte osoan ikasitakoa Herriko Antzokiko oholtzan erakutsi zuten Elgoibarko eskola-umeek barixakuan. Bertsoaren bidez ahozko komunikazioa hobetzeko sortu zuten proiektu hau eta badira hamahiru bat urte Elgoibarren lantzen hasi zirela. Gipuzkoako Bertsozale elkarteak zuzendutako proiektua da, Elgoibarko Udalak finantzatutakoa, eta aurten, Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako 261 ikaslek parte hartu dute Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Labayen bertsolariak gidatuta. Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailetako ikasleak aritu ziren joan zen barixakuan kantuan, binaka eta hirunaka. Askotariko gaiak baliatu zituzten kanturako, eta bertsolari gazte batzuk moztortuta ere irten ziren oholtzara kantura. Super heroiak, udalekuak, espiak, zooko animaliak, marrazki bizidunak, lapurrak, Halloween, Martxoaren 8a eta beste hainbat gairen inguruan jardun ziren, besteak beste.



Herri Eskolako umeek marrazki bizidunetako pertsonaiei buruz kantatu zuten.



Elgoibar ikastolako haurrak kantuan.

## Udako euskara ikastaroak Debabe euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak euskara ikastaroak ipiniko ditu abian udan. Ikastaroan izena eman nahi dutenek ekainaren 15era arteko epea izango dute horretarako. Interesatuek euskaltegiak Kalebarren plazan duen egoitzatik pasa edo 943 74 27 31 telefono zenbakira deitu beharko dute.

## Udala, sanbartolomeetako jai-egitarauko azalerako irudi bila



San Bartolome jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. Lanak ekainaren 26rako aurkeztu behar dira Kultur Etxean (13:00ak aurretik), eta irabazleak 700 euroko saria jasoko du dirutan. Nahi den teknika erabili ahal izango dute kartel egileek, baina ondorengo testu honek ezinbestean agertu beharko du kartelean: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2018*. Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu lehiaketarako, eta jakina, aurrez beste inon argitaratu gabeak izan beharko dira denak. Era berean, 18 urtez azpikoentzako kartel lehiaketa ere antolatu du Udalak. Lanak edozein neurritakoak izan ahalko dira eta edozein teknika erabilia egindakoak, salbuespen batzuekin: ezingo dira erliebedun kartelak aurkeztu, ez eta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakoak ere. Hemen ere ondorengo testu honek ezinbestean agertu beharko du: *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2018*. Epaimahaiak sei lan sarituko ditu. Saritan ez da dirurik jasoko.

## Gregorio Larrañaga 'Mañukorta' omenduko dute Sanmigeldarren Egunean

Ekainaren 16an Sanmigeldarren Eguna ospatuko dute Aiaastian. Goizean meza izango dute, eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Neska profesionalen arteko eskuz binakako partida ikusi ahal izango da gero; Nagore Aramendileire Etxaniz bikotea Alaitz Badiola-Oihana Orbegozoren aurka.



Auzo bazkaria egingo dute ondoren, eta aurten, Gregorio Larrañaga *Mañukorta* bertsolariari omenaldia egingo diote, urte hauetan Aiaastian izan duen parte-hartzea eskertzeko. Bazkaritara joateko asmoa dutenek aurrez hartu beharko dute txartela. Txartelak Armuetan, Ziarda edo Sahatzu harategietan zein Santa Klarako Jose Andresen dendan egongo dira salgai. Bai goiza eta baita bazkalosteko erromeria ere Baltzola eta Andonegi trikitilariak girotuko dute.

## 'Incognita Patagonia' espedizioari buruzko erakusketa zabalduko du Eñaut Izagirrek hilaren 15ean, Elgoibarren

Hilaren 15ean zabalduko dute erakusketa Kultur Etxeko erakusketa gelan, Ongarri Argazki Taldeak eta Elgoibarko Kultura Sailak antolatuta. Eñaut Izagirre elgoibartarrak, Ibai Rico gasteiztarrak eta Evan Miles estatubatuarrek Patagoniara egindako bidaiaren berri emango du erakusketak. Patagoniako mendikate urrunetan dauden glaziar ezezagunak eta sekula aurrez igo gabeko gailurrak esploratu eta eskalatu zituen hirukote honek. Incognita Patagonia espediziokideak Amerikako punturik hegoaldekoenean dagoen Cloue izotzeremu ezezagunera (Tierra del Fuego, Txile) abiatu ziren 2016ko martxoan, eta han esplorazio-alpinismoa eta zientzia-ikerketak uzartu zituzten. Argazki-erakusketa honetan espedizioaren nondik norakoak kontatuko ditu Izagirrek. Erakusketa hilaren 30era arte egongo da zabalik, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era.



## Mendaroko musikarien ikasturte bukaerako saioa, asteazkenean

Ekainaren 13an, asteazkenean, ikasturte bukaerako jaialdia eskainiko dute Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleek Herriko Enparantzan, 19:00etan. Trikitixakoek, abesbatzakoek, txistulariek, biolin joleek, eta akordeoi eta Konbo taldekoek parte hartuko dute. Ekainaren 15erako, beriz, kantaldia antolatu dute eta parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Herriko Enparantzan izango da kantaldia ere, 19:00etan.

## Angel Ugarteburuk Ternuara eginiko talde-bidaia, TVEn

Balearen ehizan eta bakailoaren arrantzan XV. mendetik nabarmendu ziren euskaldunen ospea ezaguna da. Historia hori eta Albaolan egiten ari diren San Joan baleontziaren errepika aitzakia hartuta, iaz, ekainaren 14tik 24ra, Ternuara bidaia zientifikoa egin zuten Kanadako, Estatu Batuetako, Irlandako eta Euskal Herriko hainbat aditu eta zalek, tartean Angel Ugarteburu elgoibartarrak. Red Bay-n San Joan galeoia aurkitu zuten taldeko buru Robert Grenier itsaspeko arkeologo quebectarra eta haren laguntzaile izandako Manu Izagirre ikertzaileak gidatu zuten bidaia hura, eta orain, han jasotakoarekin, *La memoria del arpón* dokumentala ondu dute. Ekainaren 4an estreinatu zuten dokumentala Donostiako akuariumean eta ekainaren 17an telebistan ikusteko aukera izango da, TVEn, 19:45ean. Bidaia honen inguruko azalpenak euskaraz irakurri nahi dituenak, beriz, BARRENEko komunitatean du horretarako aukera: <https://barrene.eus/komunitatea/angel-ugarte-buru>. Angel Ugarteburuk berak idatzitako testuak dira denak.

## Euskal Raid Aralar eta Sagondo taldeak nagusi Debabarrenako raidean



Arg.: Manu Sanchez

**D**ebabarreneko laugarren raidean 82 lagun lehiatu ziren, eta Euskal Raid Aralar taldea (Ibarrako Beñat Doyharzabal eta Arteako Gaizka Agirre) gailendu zen sei ordu, 55 minutu eta 44 segundoko denbora eginda eta 102 puntu eskuratuta. Emakumezkoetan Sagondo Raid taldea (Gatikako Ainhoa del Campo eta Bilboko Silvia Irastorza) izan zen onena (6:58:27 eta 66 puntu), eta Hino Deluxe gailendu zen talde mistoetan. Elgoibartarrei dagokionez, Petrus Edam taldea osatu zuten Asier Basurto eta Beñat Bollar laugarren postuan sailkatu ziren. Aurten Idotorben izan du irteera Morkaikok antolatutako probak. Gero, Arno mendikateko baso, ertz eta zelaietan barrena egin zuten trekking proba eta baita espeleologia proba bat ere, Basarte leizean. Mendaroraino ere ailegatu ziren. Han, bikoteko partaide batek orientazio proba bat egiten zuen bitartean, beste bikotekideak hiru gol sartu behar zituen bizikleta gainetik jaitsi gabe. Familientzako raidean, berriz, 82 lagunek hartu zuten parte.

## Eider Iglesiasek brontzea lortu du luzeera jauzian Euskadiko txapelketan

Mintxeta atletismo taldeko Eider Iglesiasek eta Martin Hernandezek aire libreko Euskadiko Txapelketa Absolutuan hartu zuten parte, Durangon, eta Iglesiasek brontzea irabazi zuen luzeera jauzian. Lau metro eta 85 zentimetroko jauzia eginez hasi zuen lehia, baina hurrengo bost jauzietan bost metroak gainditu zituen, eta azken jauzia izan zen onena: bost metro eta 30 zentimetro. Bere marka pertsonala ontzeaz gainera, brontzeko domina eskuratu zuen jauzi horri esker. Martin Hernandezek zortzigarren postua lortu zuen 800 metroko lasterketan (1:57.31). Bestetik, Nerea Sasiainek Copa Ibérica sub18 Portugal-España txapelketan hartu zuen parte Espainiako selekzioarekin, Portugalen, eta hirugarren postua eskuratu zuen 400 metroko lasterketan.



## Angel Ibarluzeari esker ona agertu diote Bolari Egunean



Bolari Eguna ospatu zuten zapatuan Elgetan. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketan aritu diren bolariak Lehendakari Txapelketa jokatu zuten lehenik. Lasturko bolari Roman Arrizabalaga eta Elgoibarko Xabier Loiola ailegatu ziren finalera eta Lasturrera eraman zuten txapela. Elkarrekin bazkaldu zuten gero bolariak eta txapelketetako sariak banatu zituzten bazkalostean. Sari banaketa ekitaldian Angel Ibarluzea omendu zuten. Gipuzkoako bolarien presidentea izan da elgoibartarra azken hamabost urteotan eta kirol honi eskainitakoa eskertzeko aitortza jaso zuen. Ibarluzeak Mikel Urkiari pasa zion lekukoa.

## Bihar zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Zapatuan, ekainaren 9an, irekiko dituzte Mintxetako aire libreko igerilekuak, eta hiru hilabetez egongo dira irekita, astelehenetik barixakura, 11:00etatik 20:30era eta asteburuetan 10:00etatik 20:30era. Abuztuan eta irailean itxiera ordutegia 20:00etara aurreratuko da. Denboraldi osoan egun bakarrean, abuztuaren 27an (Txiki Eguna), egongo da itxita igerilekua. Iaz eguraldiak ez zuen larregi lagundu eta aurreko urteetan baino erabiltzaile gutxiago zenbatu zituzten Mintxetan, aurreko urtean baino ia 7.000 gutxiago.



## Lehiarik gabe jolasean, Mendaroko Kirol Egunean



**A**rno Guraso Elkarteak antolatuta, Kirol Eguna egin zuten aurreko zapatuan Mendaron. Era guztietako jolas eta kirol parte-hartzaileetan aritu ziren umeak eta zenbait guraso, Mendaroko hainbat txokotan. Parte-hartzea sustatu eta talde-lana bultzatzen duten jolasak prestatu zituzten antolatzaileek.

## Goikoetxe eta Peña gailendu dira Urrezko Binakako Harrijasotze Txapelketan

Urrezko Binakako Harrijasotze Txapelketako eta Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako finalak jokatu zituzten Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, ekainaren 3an. Harrijasotzaileetan, Imanol Albizu *Goikoetxe* elgoibartarrak eta Xabier Peñagarikano *Peña* aizarnazabaldarrak osatutako bikotea gailendu zen. Elgoibartarrak eta aizarnazabaldarrak 94 altxaldi egin zituzten eta 92 altxalditan gelditu ziren aurkariak, Imanol Illarramendi eta Mikel Lopetegi.



Arg.: Uztarria

## Sanlo Festa, ekainaren 16an

2017-2018 denboraldiari agur esateko festa antolatu du Sanlok ekainaren 16rako. Egun berean egingo dute VI. Eskubaloi Eguna ere. 2006tik 2009ra bitartean jaiotako umeak Kalegoen plazan arituko dira eskubaloian, 10:00etatik 12:45era. Dagoeneko 76 ume eman dute izena. Interesatuak Sanloren web orrian ([sanlo.net](http://sanlo.net)) eman dezakete izena. Sanlo festaren barruan egingo duten bazkarirako izenematea ere Sanloren web orriaren bidez bakarrik egin daiteke. Lehiaketei dagokionez, Sanloko Zubacor infantil mutilen taldeak Gipuzkoako Kopa txapelketa irabazi du.

## June Loidi eta Nahia Legorburu, euskal selekzioarekin



Arg.: Iratxe Aragon

Senior mailako Euskadiko eskubaloi selekzioak Emakumezko 4 Nazio Txapelketaren 10. edizioa jokatu du, asteburuan, Galizian. Euskaldunek Katalunia, Ginea eta Galiziako selekzioak izango dituzte aurkari. Joseba Rodriguez eta Mikel Alzaga hautatzaileek jokalaria gazteen aldeko apustua egin dute eta jubenil mailan diharduten zortzi jokalaria sartu dituzte euskal selekzioaren deialdian. Horien artean dira Sanloko Tecnifuelle taldeko bi jokalaria: June Loidi eta Nahia Legorburu.

## Markel Bergarak Getafen jarraituko du

Markel Bergarak Realak lagata jokatu du Getafen, baina Realarekin zuen lotura eten, eta bi urterako kontratua sinatu du erdilarri elgoibartarrak Madrilgo taldearekin.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoen zaintzan edo elkarten garbiketan lan egiteko prest. Ikasketak eta esperientzia ditut.

☎ 671 989 434

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka, egun osoz edo gabez.

☎ 631 907 807

Adinekoen zaintzan, lan egiteko prest nago.

☎ 622 037 598

Adinekoak zainduko nituzke. Geriatria laguntzailea naiz. Orduzuzen malgutasun handia.

☎ 646 931 162

Adinekoak asteburuetan edo orduka zaintzeko prest.

☎ 631 558 243

Adinekoak asteburuetan zaintzeko prest.

☎ 612 411 026

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere.

☎ 663 470 706

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere.

☎ 631 644 267

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 632 621 940

Edozein lanerako prest. Esperientzia handia daukat sukaldari eta gidari lanetan.

☎ 655 676 402

Garbiketan edo adinekoak zainduz egingo nuke lan. Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 631 556 507

Adinekoak zaintzeko prest. Garbiketa lanak, sukaldaritza eta plantxa barne. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat. Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 631 406 177

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan egoteko gertu.

☎ 666 197 831

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 612 311 026

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 631 657 380

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Arduratsua naiz.

☎ 632 877 170

Gaske arduratsua lanerako prest. Adinekoak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketan. Erreferentziak eta esperientzia daukat.

☎ 631 756 284

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Ospitaletan, etxean bertan bizitzen zein orduka.

☎ 602 490 595

Adinekoak etxean zein ospitalean zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile bezala. Umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako ere gertu.

☎ 631 624 304

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak (etxebizitzak, bulegoak, ikastetxeak, hoteletako logelak...) egiteko prest.

☎ 629 903 512

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka nahiz etxeko langile moduan. Legezko egoeran nago.

☎ 634 709 827

Edozein lan egingo nuke: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak... Orduka nahiz etxeko langile moduan. Gabez ere bai.

☎ 631 891 709

Lana behar dut. Edozein lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen jardun naiz eta badut esperientzia.

☎ 631 556 507

Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest.

☎ 631 565 350

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanerako prest. Ospitaletan orduak pasatzeko, orduka lanean aritzeko edo etxeko langile moduan jarduteko gertu.

☎ 642 249 818 (Gloria)

Adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat, baita garbiketa lanetan ere.

☎ 686 077 316

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat eta berehala hasiteko gertu.

☎ 631 624 304

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia handia daukat.

☎ 631 532 426

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia handia daukat.

☎ 680 808 125

**Eskaintzak**

LH eta DBHko ikasleentzako akademian lan egiteko irakaslea behar da. Interesatuak bidali curriculumak helbide honetara: [akademialgoibar@gmail.com](mailto:akademialgoibar@gmail.com)

Emakume edo neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume batekin egoteko.

☎ 653 715 141

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxebizitza berria salgai Santa Klara kalean. 75 metro koadro. Bi logela, bainugela, jangela-egongela eta sukalde. Oso argitsua, egun guztian barrena eguzkia sartzen da. Hormak eta lurrak berri berriak.

☎ 615 725 321/653 136 107

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan.

☎ 686 420 642

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 631 790 555

**LOKALAK.....**

Lokala alokagai Olasoko industrialdean. 200 metro koadro + 70 metro koadro solairu artekoa. Instalakuntza osoa eginda.

☎ 649 258 913

Mendaroko Arrats taberna alokagai edo salgai jubilazioagatik. Interesatuak agertu tabernara edo deitu 943 755 058 telefono zenbakira.

**OSPAKIZUNAK.....**

1973an jaiotakoen ospakizuna ekainaren 23an. 13:30ean hitzordua Kalegoen plazan. Bazkaria, musika eta gaueko mokadutxo Sigma jaietxean. Izena emateko azken eguna: ekainaren 18. Sartu 55 euro ondorengo kontu zenbaki honetan: ES 15 3035 0007 27 007 1135463

**BESTELAKOAK.....**

Urrezko katea aurkitu dut kalean, gurutze eta dominarekin. Galdu duenak, deitu

☎ 626 686 355 / 943 742 233

Belarritako bat hartu dut kalean eta udaltzainen bulegoan utzi dut.

**administradores** Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Instituto Vasco de Administradores Locales Empresariales



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Nire garaje komunitatean, jabea ez den pertsona batek erabiltzen du aparkaleku bat. Gainera, ez dauka jabearen baimenik. Orain dela gutxi bilera bat egin dugu eta jabeak jakinarazi du bere tokia komunitateko kide ez den norbaitek erabili ez dezan giltzez itxiko den metalezko malguki erasgarri bat ipiniko duela. Bere garaje tokiaren barruan jarriko du, mugatik barrurantz metro batera. Jakin nahi nuke ea instalazio hori egin dezakeen ala mugaren bat dagoen horretarako.**

Aparkatzeko gune pribatuak itxeko kateak jartzeak ez du eraginik eraikinaren egitura, itxuran edo kanpoko egoeran, oso obra txikia delako. Aparkaleku gune pribatuaren ingurutik barrura eginez gero eta garajeko kideek beren ibilgailuak maniobratzerakoan egitura hori jotzeko eta hauek kaltetzeko arriskua badute instalazio horiek kendu egin beharko lirarteke.

Elementu horiek aparkatzeko gune barruan jarri eta maniobrak oztapatzen ez badituzte ez da jartzea debekatu behar eta jabeak ez du batzordearen baimenik beharko ipintzeko.

**Aholkua: komenigarria da tokiko hirigintza-ordenantza begiratzea debekuren bat ba ote dagoen jakiteko**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Lucia**, hilaren 28an 7 urte bete zenituelako. Muxuak familia guztiaren partez.



Zorionak, **Jon!** Bihar 3 urte. Patxo handi bat etxe-koen, eta batez ere, Leireren partez.



Zorionak, **Sare**, martitzen 7 urte bete zenituelako. Muxu haundi bat danon partez. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, azkenean 6 urte bete teko dituzu. 6 muxu handi, etxe-koen partez.



Zorionak, **Endika!** 9 urte. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki Markelen eta Danelen partez. Segi jator!



Zorionak, **Arhane**, ekainaren 5ean 10 urte bete zenituelako. Familia osoaren partez.



Zorionak, maitia, gurasoen, ahizparen, aitona-amonen, izebaren eta lehengusuen partez. Muxu handi bat.



Zorionak **Peio!** Asteazkenean 2 urte bete zenituen. Muxu handi bat etxe-koen eta bereziki Danelen partez.



Zorionak, **Nahia** eta **Izar**, ekainaren 13an eta 14an zuen urtebetetzeak ospatuko ditugulako. Ondo pasa, eta muxu potolo bana etxe-koen partez.



Zorionak, **Jon** eta **Javier**, 6 urte bete dituzuelako. Muxu handi bana familia osoaren partez eta oso ondo pasa.



Zorionak, **Maddi** eta **Haizea**, ekainaren 4an 8 urte bete zenituztelako. Muxu handi bana etxe-koen partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



## LAN DEIALDIA

LH eta DBHko Akademian lan egiteko curriculumak jasotzen dira. Interesatuak bidali helbide honetara:

**[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)**



## PINTURA ETA DEKORAZIOA

### CORDON VILARCHAO

[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

**943 740 570 / 636 98 61 62**


ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

# Luxuaren astea

# - %50

Ekainaren 11tik 16ra

Dior  
Fendi  
Jimmy Choo

uzurioptika
 facebook.com/uzurioptika

## 8 BARIXAKUA

**17:00** Kiribil. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

**18:30-20:30** Erakusketa: Joxe Martin Urrutia *Txotxe*, antzerkigintza eta bizitza marraztuz. Astelehenetik zapatara, ekainaren 17ra arte. Antolatzailea: Ekekei. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**19:00** Dantza jaialdia: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Txistulari eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak parte hartuko dute. Kalegoen plazan (euria eginez gero, Lekuederreko karpan).

**22:00** Dantza emanaldia: *Biraka zinema*. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

**22:30** Rock gaua: Udal Musika Banda, Alex Sardui, Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala abeslariekin eta herriko beste zenbait musikariek. Maalako parkean.

## 9 ZAPATUA

**10:00** Mintxetako igerilekuen udako denboraldiaren irekiera. Mintxetan. Antolatzailea: Elgoibarko Kirol Patronatua.

**10:00** Ikastolaren Eguna Mendaron. Erakusketa, jolasak eta herri bazkaria izango dira ikastolan bertan.

## 10 DOMEKA

**12:00** Giza katea: 2019 arrazoiz erabakitzeke. Elgoibarren eta Mendaron. Antolatzailea: Gure Esku Dago.

**14:30** Herri bazkaria Mendaroko frontoian. Antolatzailea: Gure Esku Dago.

## 13 EGUAZTENA

**20:00** Dantza emanaldia: *Biraka zinema*. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Biraka Dantza.

## 14 EGUENA

**20:00** Dantza emanaldia: *Biraka zinema*. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Biraka Dantza.

**20:00** Meditazioa eta jardunaldia: Kristau fedea gako transpertsonean. Gidaria: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Isiltasun Eskola.

## 15 BARIXAKUA

**16:30-19:30** Giza-futbolin erraldoia. Kalegoen plazan (euria bada Maalan). Antolatzaileak: Elgoibarko Ludoteka eta Gaztelekua.

**18:00-20:30** Odol ateratzea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartean.

**19:00** Inazio Bereziartua Musika Eskolako talde finkoen ikasturte amaierako kontzertua. Maalan.

**20:00** Dantza emanaldia: *Biraka zinema*. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Biraka Dantza.

**21:30** Bideo Foruma: *Un amor de verano*. Gidaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Hairea.

**21:30** Argazki erakusketa: *Incognita Patagonia*. Eñaut Izagirre Estibariz. Astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Ekainaren 30era arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea.



III. URTEURRENA

*Garbiñe Iriondo Aristondo*

2015eko ekainaren 13an hil zen.

***Izan zarena, erakutsi duzun kemena,  
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00		
8 BARIXAKUA	9 ZAPATUA	10 DOMEKA	11 ASTELEHENA	12 MARTITZENA	13 EGUAZTENA	14 EGUENA	15 BARIXAKUA
Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b> Yudego	Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>
Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>*Ibañez</b>	Iluntzean <b>*Ibañez</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
La Fuente  
Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410

## Maiatzean hildakoak

- **Trinidad Matas Coro**  
93 urte, maiatzak 5
- **Agustin Makazaga Martija**  
88 urte, maiatzak 16

- **Joxe Mari Isasti Zulaika**  
89 urte, maiatzak 17
- **Asuncion Otegi Zabala**  
96 urte, maiatzak 18

- **Antonio Ibarluzea Zubialdea**  
67 urte, maiatzak 22
- **Juan Rodriguez Poza**  
69 urte, maiatzak 30



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**  
**635 756 295**  
**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutzak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



## 1961-1962

Jose Mari Azpeletak ekarri digu 1961-1962 ikasturtean ateratako erretratu zahar hau. Pilar ikastetxeko hainbat adinetako mutilek elkartuta atera zuten argazkia. Horietatik zenbaitek ospakizun bazkaria izango dute zapatuan eta han, besteak beste, eskolako kontuak ere gogoratuko dituzte. Garai hartan bazen batek besteari abizenaz deitzeko joera eta Jose Mari Azpeleta eta Juan Carlos Arrieta izenen bila ibili diren arren, ez dituzte denak aurkitu. Hala ere, gogora ditzagun zeintzuk diren: **Goian, ezkerretik eskumara:** J.M. Etxeberria, Juan Antonio Lizarralde, Jose Esnaola, Pedro M. Etxabe, Agustin Sanchez, ezezaguna, Gumersindo Conde, Jose Luis Mugika, Martin Eugi, Jesus Oria, Gonzalez, Jose Antonio Tercero. **Bigarren ilaran:** Angel loiola, Iñaki Zubiaurre, Toño Benitez, Sodupe, Patxi Zabala, Ignacio de la Horra, Venerando Cid, Jose Luis Perez, ezezaguna, Iñaki Perez eta Arcadio Sarruiarte. **Hirugarren ilaran:** Pedro Arosa, Jesus M. Gabilondo, Quintas, Iñaki Lehr, Jose Luis Arrieta, Lodoso, Ion Ortuoste, Jose M. Azpeleta, Gonzalez, Javier Anton, Feijo, Justo Iglesias, Camilo Conde, Francisco Javier Iglesias eta Jose M. Babarro. **Behean makurtuta:** Felipe Arozena, Ricardo Garcia, Mikel Gabilondo, Vicente Berasaluze, Alberto Vitores, Luis M. Ansola, Badiola, Juan Antonio Exposito, Mikel Ibañez, Jose Angel Arozena, Julian Iriondo, Badiola, Juaristi eta Juan Carlos Arrieta.




## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- \* e-postaz bidali: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)
- \* Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**





# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
bienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com  
ELGOIBAR

**Fontanería Ibámar**  
ITURGINTZA  
San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza  
Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA  
  
Azpilgoeta 7 behea - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintza@tellabide@hotmail.com

**SANTANA**  
Igor Santana  
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.  
Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

## ARozTEGIak

**ASIMA**  
Aroztegia · Carpintería  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar  
687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
ARozTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547

**BIENA S.L.**  
ARozTEGIA  
Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus  
f

**IMAR**  
ARozTEGIA  
Olaso industriagunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriaimar@hotmail.com  
f

**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak  
Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA  
Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR  
Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR  
Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**iparelek S.L.**  
elektrizitatea  
Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 356  
iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com

## LEIHOAK

**LODOSO**  
LEIHOAK  
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA

**A. Garate**  
Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar  
**610 226 651**

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK  
Urazandi, 22 behea - Elgoibar  
Tel.: 605 705 204  
Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurrekin ere  
lan egiten dugu.

## PINTURA

**BLOK**  
dekorazioa  
Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

# etxegain

BIZIGUNEA

## Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

★  
3 logelako  
etxebizitzak  
160.000 € -tik  
hasita

# elgoibar

3 ETA 4  
LOGELAKO  
21 ETXEBIZITZA

TERRAZA ZABALAK ETA  
PERTSONALIZATZEKO MODUKO  
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK  
10 M<sup>2</sup>-TIK  
GORAKOAK

EGONGELA  
GUZTIAK 20 M<sup>2</sup> -TIK  
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK  
DITUZTEN TERRAZA  
HANDIAK GARAIERAN

**etxegain** goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarriaz gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREK eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin.

**etxegain** en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



**GE** grupo eibar  
inmobiliario

943 31 66 11

E: comercial@grupoeibar.com  
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

630 24 83 83  
689 66 08 01

ORERA FINANZIOA POR  
**bankoia** | Grupo  
Crédit Agricole